



## TOLOSAKO HEOko ESKOLA KONTSEILUAREN EGITEKOAK

Apirilaren 15eko 82/1986 DEKRETOA, Euskal Herriko ikastegi publikoetako Gobernu Organoetako kideak eta horien egitekoak araupetuz.

### 15. Artikulua: **Eskola Kontseiluari honako egiteko hauek ematen zaizkio:**

- a) Zuzendaritza taldeak, urterako, landu dezan ikastegirako programaketa orokorra onartzea.
- b) Aurrekontuarekin batera ikastegiaren ekonomia gestio plana eta bai urteko balantzea eta inbentarioa onartzea.
- c) Ikastegiko eskolaz kanpoko eta osagarrizko ihardun plana onartzea.
- d) Ikastegiaren guztizko ihardunak gainbegiratzea, plan eta programa hauetako bakoitza burutzerakoan.
- e) Gainontzeko gobernu organo kolejiatu, batzorde eta pertsona bakarreko organoengandik, beren egitekoak betetzeari buruzko informazio zehatza jasotzea.
- f) Eskolako instalazio eta horniduren berriketa bultzatzea eta horien zainketa zaintzea.
- g) Kontseiluaren batzorde iraunkorraren proposamenez, Hezkuntza Administrazioak ikasturterako ezarritako eskola egunen banaketa onartzea.
- h) Eskolaz kanpoko eta osagarrizko ihardunen gestio, ekonomia gestio eta programaketa orokorrari buruz, hurrenez-hurren, batzorde iraunkorrak, ekonomia batzordeak eta zuzendaritza taldeak landutako urteko memoriak onartzea.

### 16. Artikulua: Halaber, Eskola Kontseiluari dagokio, bere autonomiaz baliatuz, ikastegiko erabaki nagusienak hartzea, horretarako **honako aginte hauek dituela:**

- a) Zuzendaria aukeratzea eta honek proposatutako zuzendaritza taldea izendatzea.
- b) Zuzendariaren izendapena indargabetu dadila proposatzea, bere kideetatik bi hereneko gehiengoz onartutako erabakia jaso ondoren.
- c) Ikasleen onarpenari buruzko ebazpena ematea, indarrean dauden legeek eta erabakiek ezartzen dutenari hertsiki atxikiz.
- d) Ikasleen disziplina arloarekiko arazoak ebaztea eta zigorrak ezartzea, horien eskubide eta eginbeharrak araupetzen dituzten arauen arabera.
- e) Barne errejimenerako araudia onartzea.
- f) Beste ikastegi batzuekiko kultura eta hezkuntza xedezko lankidetzak harremanak ezartzea.
- g) Ikastegiaren ihardunaren ebaluaketari buruzko informazioa, Hezkuntza Ikuskaritzatik jasotzea.

### 17. Artikulua: Legez izendatzen zaizkion gainontzeko egitekoak ere, badagozkio Eskola Kontseiluari.

HAUTESKUNDE BATZORDEKO BURUA

Izpta.: Victoria HERNÁNDEZ